

15/16
ikasturtea



Literaturaren erudituek aspertu arte aztertzen dute dena: teknikak, gaiak, oximorona eta metonimia, alegoria eta konotazioa; gako ezkutuak eta inplikazio psikologikoak; pertsonaia arketipikoak eta haraindiko ideiak, eta auskalo zer gehiago. Kontua da irakurketaren plazera zikiratu egiten dutela –pixka bat soilik– haien bidearen erdian jar ez dadin, guri gogorarazteko literatura ez dela jolas bat eta, oro har, bizitza ez dela txantxa bat. Alabaina, Gogolen sudurrak, Yizharren kolore laranjak, Yaakov Shabtaireren terrazako behiak eta osaba-izebek, are Kafkaren deabruzko zaldiek ere, [literaturaren emaitza] horiek guztiek alegia, hezkuntzaren fintasun ezagunak, informazioa eta gainontzeko guztia eskaintzeaz gain, plazeraren eta jolas alaiaren mundu batera erakartzen gaituzte. Istorio hauetako bakoitzean onartzen zaigu “kanpoan” baimentzen ez zaigun zerbait: ez soilik ezagutzen dugun munduaren isla bat, ez soilik bidaia bat ez-ohikora, baizik eta baita “pentsaezina” ukitzeko lilura bera ere. Kontakizun baten barnean bururagarri bihurtzen da hori, ordea, gure zentzuentzat eta gure beldurrentzat eskuragarri, eta baita gure irudimenarentzat eta pasioentzat ere. Irakurketaren jolasak aktiboki parte hartzera behartzen du irakurlea, bere bizitza-esperientziaren eta inozentziaren ekarpena egitera, eta baita bere zuhurtzia eta maltzuratasunarena ere.

Amos Oz

GEU elkartearen ekimenez



BABESLEAK:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAGUNTZAILEA:



ZULOA IRUDIA liburu-dendan (Hedegile 21) %10 beherapena
Gasteizko Irakurle Klubaren 15/16 ikasturteko liburuetan.

Irakurketaren jolas hori dugu helburu Gasteizko Irakurle Klubean, eta, izan ere, Amos Ozek aipatzen duen hori baino ez dugu egiten: liburuak irakurri, liburuez hitz egin. Ez zaizkigu sobera interesatzen literatur lanen azterketa eruditua, irakurleon esperientzia zuzena elkarrekin konpartitzea baizik. Hilean behin biltzen gara, beti ere euskaraz idatzitako edo euskarara itzultitako liburuen inguruan. Hemen duzu, beraz, 2015/2016 ikasturterako proposatzen dizugun irakurketen egitaraua. **Gonbidatuta zaude.**

Urriaren 8a, osteguna

Aurkezpen ekitaldia. Jule Goikoetxea, Kattalin Miner & Danele Sarriugarte, 'Erractus'.

Urriaren 29a, osteguna

Philip K. Dick, *Ordaina*, Meettok 2015.

Azaroaren 26a, osteguna

Unai Elorriaga, *Iazko bezurrak*, Susa 2014.

Abenduaren 17a, osteguna

Birgit Vanderbeke, *Muskulduak afaltzeko*, Pasazaite 2012.

Urtarrilaren 28a, osteguna

Virginia Woolf, *Dalloway andrea*, Edo 2014.

Otsailaren 25a, osteguna

Mikel Peruarena, *Su zelaiak*, Susa 2014.

Martxoaren 17a, osteguna

Xose Luis Mendez Ferrin, *Mugaldeko jendea*, Elkar 1998.

Apirilaren 21a, osteguna

Ixiar Rozas, *Beltzuria*, Pamiela 2014.

Maiatzaren 26a, osteguna

Elias Canetti, *Mibia aske*, Erein-Igela 2013.

Ekainaren 30a, osteguna

Francis Scott Fitzgerald, *Plazeraren gau ilunekoak*, Elkar 2014.

Koordinatzailea: Iban Zaldua

Lekua: Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

(Florida ibilbidea, 9)

Ordua: 20.00



@GastIraKluba